



ELKARTASUNA DA SENDABIDEA

Pandemia osteko Europa irudikatzen



GUENGL
www.guengl.eu



ELKARTASUNA DA SENDABIDEA

Pandemia osteko Europa irudikatzen




EUROPEAN PARLIAMENTARY GROUP
European Parliament,
B-1047 Brussels, Belgium
+32 (0)2 283 23 01

guengl-communications@europarl.europa.eu
www.guengl.eu

Icons made by Eucalyp from www.flaticon.com

Mai 2020

SARRERA



Covid-19 pandemiak eztanda egin zuenean, Europar Batasuneko erakundeen erantzunak sendoa eta erabakigarria izan behar zuen. Alabaina, neurriak berandu heldu ziren, elkartasuna falta zitzaien, eta krisi honen tamainari eta larritasunari aurre egiteko gai izatetik urrun zeuden.

Europar Batasunaren (EB) politika neoliberalen ondorioak eta Estatu Kideen arteko koordinaziorik eta elkartasunik eza agerian geratu ziren; izan ere, egoera larrian zeuden Estatu Kideei laguntzeko eta berreskuratze ekonomikoa eta soziala sustatzeko neurriak ez ziren garaiz heldu eta ez ziren behar adinako mailakoak izan.

Hain zuzen, langileak izan dira koronabirusaren aurkako guduaren frontearen egon direnak. Ospitale eta farmazietako osasun-langileek, zaintzaileek, garbitzaileek, dendariak eta beste hainbatek egoera latzak jasan dituzte eta euren bizitzak arriskatu dituzte maiz. Langile horiekin bat eginik, herritar kalteberak eta gizarteak, oro har, premiazko konponbideak eskatu zituzten arrazoiz krisiaren larritasunari erantzuteko eta merkatu librearen ideologoen eskutik hamarkada ugari zehar zerbitzu publikoei egindako erasoak konpontzeko.

Funtsezkoa da austeritatean, pribatizazioan eta desarautzean oinarritutako politikak alde batera uztea, gure osasungintza suntsitzen eta langileei kalte egiten aritu baitira.

Europar Batasunak lau esparru gakotan jardun behar du: osasun arlo publikoa sustatzen; lanpostuak sortzen eta babes soziala indartzen; krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiten, berreskurapena berdea eta bidezkoa izango dela bermatuz; eta oinarritzko eskubideak betearazten.

Zorigaiztoko egoera honetatik irteten garenean, mundua desberdina izango da. Ez gara besterik gabe lehengora itzuliko, eta ez ginateke honaino ekarri gaituen sistema zaharrera itzuli beharko. Ikasbideaz baliatu gaitzake, eta beste mota bateko erabakiak hartu ditzakegu etorkizunera begira. Pandemia hau zaila eta kezagarria izan den arren, era berean, komunitate asko elkartu egin dira eta orain arte gutxietsiak izan diren langile askoren lan erabakigarriaz ohartu dira. Beharrezkoa da tokiko komunitateetan ikusi dugun elkartasuna eskala handiko aldaketa gisa islatzea. Horrek zera esan nahi du, berdintasuna, eskubideak, justizia soziala eta jasangarritasuna erdigunean jarriko dituen berreskurapen baten alde borrokatu behar gara.

Hilabete hauek erakutsi digute soilik guztiok seguru gaudenean dagoela seguru gutako bakoitza eta, horrenbestez, aukera honi heldu behar diogu gure osasun-sistema publiko kolektiboak indartzeko, langile guztiak babes-sare bat emateko eta berreskuratzean zehar burutuko diren inbertsio publikoak behar dugun trantsizio sozial eta berdearekin lerrokatuta daudela segurtatzeko.

Covid-19aren krisiari erantzuteko benetako erantzun kooperatibo bat behar dugu, bereziki bere dimentsio globala dela eta. Gu guztiontzat etorkizun hobe bat irudikatze eta antolatze aukera bat da, aurrerapenean eta eskubide sozialetan oinarritutako gizarte berdinezaleak eraikitze, denoi justizia klimatikoa eta demokrazia eskaintzeko.

Manon Aubry eta Martin Schirdewan,
Europako Parlamentuko GUE/NGL
taldeko presidentekideak

OSASUNA ETEKINEN AURRETIK



Osasun publikoari eta elkartasunari dagokienez, “kostuak kostu” ikuspegia izan behar dugu.

Europar Batasunak, nazioarteko finantza-erakundeekin elkarlan estuan, gobernuen gastua drastikoki moztu zuten erreforma neoliberalak inposatu ditu azken hamarkadetan. Horrek oso ondorio kaltegarriak izan ditu osasun sistema publikoengan. Politika neoliberalak eta austeritatea errotik irauli behar ditugu, inbertsio handien bidez osasun zerbitzu eta gizarte-segurantza sistema sendoagoak ezarriz. Europar elkarlana eta koordinazioa, berehalakoa eta irmoa, funtsezkoa da osasun publikoa arriskuan jartzen duten Covid-19aren gisako mugaz haraindiko mehatxu larriak bideratzeko. Hori lortzeko honako hau behar da:

- Osasunaren arloko europar plangintza erreal bat, tratamenduak eskaintzeko baliabide guztiak Estatu Kideen esku jarriz; ekipamendu medikoen eta sendagaien hornikuntza koordinatuz; eta ospitaleak gainezka izanez gero gaixoak mugaz haraindi lekualdatzea antolatuz.
- Osasun sistema publikoak zaintzea eta horien finantziario nabarmen igotzea kalitate oneko ospitaleetarako, adineko pertsonentzako zaintza zentroetarako, tokiko osasun zerbitzu etarako eta sendagaietarako sarbide unibertsala bermatzeko. Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak babestu behar dira.
- Europar Batasuneko Estatu Kideek produkzio-guneak nazionalizatu edo konfiskatu beharko lituzkete beharrezko ekipamendu mediko guztiak ekoizteko premia balego; Europako Batzordeak Babes Zibilerako Mekanismoaren barruan sartzen diren aukera guztiak erabili beharko lituzke etorkizuneko hornikuntza egokiak bermatzeko.
- Itxialdiaren osteko ikuspegi bat koordinatzea birusa berriz agertzea saihesteko. Europar Batasunak eta Estatu Kideek baterako irizpide batzuk garatu beharko lituzkete berrogeialdiaren amaiera eta beste larrialdi-neurri batzuk adosteko, giza bizitza babestean oinarrituz eta udalerrri, eskualde edo estatu batek neurriak noiz jaso ahalko dituen garbi adieraziz.

EKINTZAK GAKOIA:

- Batzordeak eta Estatu Kideek baliabide egokiak bermatu beharko dituzte bai orain eta bai etorkizuneko epe luzerako aurrekontuan Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolako Europako Zentroarentzat, Sendagaien Europako Agentziarentzat eta Elikagaien Segurtasunerako Europako Agentziarentzat.
- EBko diru publikoarekin ikerketak burutzen direnean, ikerketa horien emaitzek ez dutela jabetza intelektualaren eskubiderik izango bermatu behar du Batzordeak. Ondorioz, koronabirusaren aurkakotxerto eta tratamendu seguru eta libre guztien sarbidea eta erabilgarritasuna ziurtatzeko eta sustatzeko ekimen esanguratsu guztiak aztertu behar ditu Batzordeak, horretarako beharrezkoak diren tresna guztiak erabiliz, esaterako, derrigorrezko lizentziak, baterako patenteak eta bilaketa sistemen derrigorrezko sarbide irekiak.
- Estatuak sektore gakoak kontrolatzea, esate baterako, osasun zerbitzuak, eta egoerari erantzuteko ezinbestekoak diren beste zenbait sektore babestu behar dira. Merkatuaren esku uzteko garrantzitsuegiak diren sektore estrategikoetako produkzioa birlokalizatu behar da, bereziki norbere babeserako ekipamenduen, testen, sendagaien eta ekipamendu medikoen kasuan. Horrekin batera, jabetza publikoko farmazia-entresak ezarri behar dira.
- Estatu Kideek babes neurri osagarriak hartu behar dituzte emakumeen eta haurren aurkako indarkeriaren gorakada nabarmenaren aurrean. Telefono bidezko arreta eta etxeko indarkeriaren biktima guztientzako zerbitzuak “oinarritzako zerbitzuak” dira eta irekita mantendu behar dira.
- Estatu Kideek bermatu beharko lukete Covid-19 pandemiak iraun bitartean emakume eta neska guztiek sexu eta ugalketa osasun eta eskubideetarako (SRHR ingelesez) eta beharrezko osasun zerbitzu etarako sarbidea izango dutela, modu seguruan eta garaiz. Horrek kontrazepzioarako aukera eta aborturako laguntza izatea esan nahi du, larrialdietako kontrazepzioa eta abortatzeko sendagaiak medikuaren zaintzapean etxean erabiltzeko aukerak barne hartuz.
- Osasun sistema publikoak sendotzea, nola sendatze- hala prebentzio-ikuspegitik, hurrengo epidemiaen aurrean hornidura eta finantziario hobeak izan ditzagun. Osasun publikoaren sektore publikoaren edo irabazi asmorik gabekoaren esku egon beharko litzateke.

LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA JUSTIZIA SOZIALA BABESTEN



Oro har gutxi irabazten duten, egoera kalteberan dauden eta maiz arretarik eskaintzen ez zaien langileen garrantzia azpimarratu du krisi honek. Omenaldia egin behar diegu horiei, eta ez soilik eguneroko txaloekin, baizik eta errespetuarekin, lan-baldintza duinekin, eta euren eskubideak eta ordainsariak epe luzean hobetuz.

Langile askok gure gizartearentzat funtsezkoak direla frogatu dute eta askok itxialdiaren ondorio latzak jasan dituzte. Lehenengo lerroan lanean ari diren langile gehienak emakumeak dira, eta koronabirusaren zamaren zati handiena euren gain hartzera behartuak izateko arrisku handiagoa dute. Gure heroiak soldata-igoera bat merezi dute.

Denontzako babes-neurriak, enplegua eta eskubide sozialak babestu eta sustatu behar dira. Estandar garaienak bermatzeko, gure jarduera honako gidalerro hauetan oinarritu beharko da:

- EBko Estatu Kideek lanpostuak salbatu eta finantza-neurrien bidez diru-sarrerak babestu behar dituzte, esate baterako, soldatak ordaintzeko dirulaguntzen edo ordainsari osoko lanaldi murriztuen bidez, ordaindutako gaixoaldiak luzatuz eta haurrak edo mendekotasuna duten senitartekoak zaindu behar dituzten langileen lanordua murriztuz, ordainsari osoa mantentzen zaien bitartean. Haurren zaintzarako aukerarik ez duten guraso langileen kasuan, bereziki guraso bakarren kasuan, guraso-baimen osagarri bat eskaini beharko litzateke, baldintzarik gabea eta ordaindua, denentzat.
- Inor ez litzateke babesik gabe edo arrisku handian lan egitera behartu behar. Oinarritukoak ez diren jarduerak eten egin beharko lirateke eta langileei etxean geratzea gomendatu beharko litzateke. Langileek telelana burutzeko aukera eta baliabideak izan behar dituzte haien osasuna babesteko xedez, araututako esparru batean. Deskonexio-eskubidea errespetatu egin behar da.
- Kaleratzeen aurrean langile guztiak babestu behar dira. Enpresa pribatuei ematen zaizkien dirulaguntzak zero kaleratzeen baldintzapean eta uneko lan-baldintzak babesteko baldintzapean eman beharko lirateke. Egoeraz baliatuz langileen eskubideei erasotzeko zenbait Estatu Kidek eta enpresek eginiko saiakerak irmoki gaitzetsi behar dira.

EKINTZAK GAKOA:

- Europar Batasunak Europako Gutun Sozial berrikusia onartu eta bertan xedatutako eskubideak bermatzeko pausoak eman beharko litzateke berehala. Estatu Kide guztiek Gutun berrikusia berretsi beharko lukete, hala nahiko balute estandar zorrotzagoak izateko aukera emanaz. Eskubide sozialen europar zutabea berraztertu eta hobetu egin beharko litzateke txirotasunaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko.
- Estatu Kideek zerbitzu publikoetan inbertitu behar dute, bereziki osasungintzan, hezkuntzan, haurren, adinekoen eta etxegabeen zaintzan eta etxebizitzetan. Era horretan, krisi soziala arindu eta desabantailan dauden taldekideen bizitzak hobetu ahalko ditugu, tartean txirotasun edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden horienak.
- Estatu Kideek diru-sarreraren galera, babes soziala eta zaintzaren zamatik emakumeek jaso beharreko pentsio-eskubideak bideratu behar dituzte.
- Etxebizitza ziurtatu behar da, bai krisi honek iraun bitartean bai krisia igaro ondoren. Estatu Kideek etxegabetzeak debekatu eta langabezia daudenen edota diru-sarrera baxuak edo ertainak dituztenen hipoteka eta alokairuen ordainketak eten behar dituzte krisi honek iraun bitartean. Krisiaren ondoren, premia handienak dituztenentzat etxebizitza publikoak sustatu eta alokairuen prezioak mugatu behar dira.
- Langabezia -sariak baldintzarik jarri gabe eman behar zaizkie euren enplegua galdu dutenei ekonomia erabat berreskuratzen den arte.
- Langabezia Berraseguratzeko Plan Europar bat behar dugu, elkartasunaren eta beharrezkoen printzipioetan oinarrituko dena, eta ez maileguaren baldintzetan, langabeziaren sistema nazionalak ukitu eta beherantz berdindu gabe.
- Sindikatuak, hitzarmen kolektiboak eta hiruko hitzarmenak kontsultatzea da langileen eskubideak, soldatak eta enplegua babesteko modurik onena. Gainera, horrek krisiaren eragina arindu lezake eta, hala, luzaroko atzeraldi bat saihestu liteke.
- Negoziazio kolektiboa da lan-baldintza hobek bermatzeko eta langile mota guztiak eta lan-harremanak babesteko tresna onena. Sistema horiek sendotu behar dira, batik bat ezohiko enplegua edo enplegu ezegonkorra duten langileen, autonomo faltsuen edota plataforma-langileen kasuan, eta bereziki troikaren politikak kaltetu dituen sistemen kasuan.

- Programa publiko erraldoi bat beharko da turismoaren sektorean lanpostuak galtzea saihesteko eta osasun publikoaren egoerak aukera ematen duenean Europan konektagarritasun jasangarria eraikiko dela bermatzeko. Inbertsioek ingurumen eta gizarte estandarrekiko baldintza zorrotzak bete beharko dituzte eta, ildo beretik, banaketa-kateetan zehar giza eskubideei dagokien arreta ematen zaiela eta gardentasun fiskala bermatu beharko dira.
- Kirolaren, kulturaren, komunikabideen eta sormenaren sektoreek diru laguntzak behar dituzte, Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimenaren bidez ere bai. Kirolaren, ekitaldien edota kulturaren arloko profesionalak, kazetari autonomoak eta beste langile autonomo batzuek babes eta konpentsazio neurriak jasotzeko beharra dute.
- Estatu Kideek hezkuntza-eskubidea bermatu beharko lukete, haurrak zaintzeko zerbitzuak barne hartuz, liburategietan eta etxeko-eskolatzean sarbide digitala eta ordenagailu pertsonalak ziurtatuz; eskolako software-lizentziak eskoletatik kanpo erabiltzeko aukera emanez; 2020an azterketak ikasleek inolako bazterketa motarik jasan gabe egingo direla bermatuz.

INBERTSIOEK INGURUMEN ETA GIZARTE ESTANDARREKIKO BALDINTZA ZORROTZAK BETE BEHARKO DITUZTE ETA, ILDO BERETIK



PERTSONENTZAKO ETA LURRARENTZAKO ERANTZUN EKONOMIKO EGOKI BAT

Pandemiari modu eraginkorrean aurre egiteak iraganeko arrakastarik gabeko austeritate-neurri suntsitzailen ikasbidea ikastea eskatzen du. Egungo egoerak erantzun sendo bat behar du europar mailan, baina argi geratu da orain arte adierazitako neurriak desegokiak izan direla. Jendeak ez luke krisiaren prezioa ordaindu beharko. Beste bide bati heldu behar zaio elkartasuna sustatzeko eta herritarrek eta herrialdeek aurrean duten arriskua txikiagotzeko. Berreskurapenak berdea izan behar du, Parisko Hitzarmenean hartutako konpromisoekin lerrotatuta egon behar du.

EKINTZAK GAKOA:

- Egonkortasun eta Hazkunde Ituna eten egin beharko litzateke ezeztatzea lortu bitartean eta Seihileko Europarraren eta Desoreka Makroekonomikoen prozedurak luzerako eten beharko lirateke, Estatu Kideek zerbitzu publikoak eta berreskurapen programak finantzatzeko gaitasuna izan dezaten. Horien ordean Garapen Iraunkorraren eta Enpleguaren Itun bat ezarri beharko litzateke, zeinak irizpide sozialetan oinarrituta leudekeen, lan egoki eta duinean adibidez, langileen eskubideak babestuz.
- Europar erakundeek, eta bereziki Europako Banku Zentralak (EBZ), berehala esku hartu behar dute beste finantza eta zor publikoaren krisi bat agertzea saihesteko; EBZk azken aukera gisa Estatu Kideen mailegatzaile gisa jarduteko konpromisoa hartu behar du. Beharrezkoa da berehala Covid-19 bonuak sortzea, eta EBZk igorritako edo EBZren erosketa-programaren batek bermatutako EBren Itun Berdearen Bonuek baldintzarik gabeak izan behar dute eta Estatu Kideei pandemiaren krisitik azkar suspertzeko eta inor atzean utzi gabe beren ekonomia eraldatzeko aukera eman behar diete; Covid-19 bonu horiek iraunkorrak eta interesik gabeak izan beharko lirateke, ohiz kanpoko shock ekonomiko bat konpentsatzeko asmoz dirua modu iraunkorrean sortzeko aukera gisa; bonu horiek Europako Berreskuratze Funtsak edo EIBk ere igorri ditzake, betiere baldintza makroekonomikorik edo bestelako baldintzarik gabe eta berehala EBZk erosiko lituzkeelarik.
- Covid-19arekin lotutako zor publikoa identifikatu eta ezeztatu egin behar da, bereziki EBZren jabetzakoa denean, gure ekonomiek berriro hutsetik hasteko aukera eta eragin ekonomiko eta sozialak gainditzeko aukera izan dezaten.

- Gutxienez 1,5 bilioi euroko Europako Berreskuratze Funtsa behar dugu, zero-eritas-tasa izango duten bonu iraunkorrez osatua, kohesio-arauek xedatutakoari jarraiki Estatu Kideei banatuko zaizkienak, baldintza makroekonomikorik edo bestelako baldintzarik izango ez duten dirulaguntza gisa. EBZk bonu horiek erosi beharko lituzke, eta horiek ez lirateke aintzat hartuko Egonkortasun eta Hazkunde Ituna betetzeari dagokionez, ituna indargabetu bitartean. Berreskurapenerako inbertsio-plan honek, "kohesio ikuspegi" batean oinarrituta finkatu beharko litzatekeenak, ekonomien erabateko eraldaketaren eskutik joan behar du, inor atzean utzi gabe ingurumen- eta biodibertsitate-krisiari aurre egiteko erabateko eraldaketa behar baita.
- EBZk eta Batzordeak bankuaren estatutuak berraztertzea proposatu beharko lukete, bankuak gastu publikoak babesteko duen gaitasuna areagotzeko eta Covid-19a agertzean erabilitako tresna berriekiko bateragarri bihurtzeko, baldintza gabeko bonu iraunkorrak barne.
- Finantza-merkatuak zorrotz arautu behar ditugu espekulazio-arazoak saihesteko. Salmenta laburrak, dibidenduen banaketak, hobariak eta berrerosketak debekatu egin behar dira epe laburrean eta zorrotz arautu epe luzean.

ERASO ESPEKULATIBO EIAURRE EGITEKO, FINANTZA-MERKATUEN ERREGULAZIO ZORROTZA BEHAR DUGU

- Europar Batasunak eta Estatu Kideek baliabide berriak sortu beharko dituzte berreskurapena finantzatzeko. Berreskurapena ez da bidezkoa izango sozialki ez baldin bada finantza-baliabide progresibo eta birbanatzaileekin finantzatzen. Enpresa handiei eta pertsona aberatsei zuzendutako zergak igo egin beharko lirateke. Beharrezkoa da enpresen irabazien gaineko zergak igotzea, etekin handienak dituzten enpresei tasa altuagoak ezarri, eta pertsona aberatsenentzat ondarearen gaineko zerga bat eta finantza-eragiketen gaineko zerga sortuz.
- Europar Batasunak kapital-zuriketaren eta zerga-ihesaren aurkako borroka areagotu beharra dauka, eta berehala zerga gardentasunaren, zerga paradisuaren zerranda sinesgarri baten (EBko herrialdeak barne), eta gutxieneko sozietate-zerga baten ezarpena adostu beharra dauka.
- Pertsonen osasuna eta ongizatea arriskuan jartzen duten zigor eta blokeo ekonomikoak berehala eten behar dira. Horren ordez, nazioarteko elkartasuna behar dugu, EBren kanpoko herrialde batzuek erakutsi duten eran. Elkartasun hori beste krisi-garai batzuetara ere zabaltu beharko da. Hori bereziki garrantzitsua da hego hemisferioarentzat, galerak eta kalteak, egokitzapena eta klima-finantzaketa bideratzeko.
- Munduko Merkataritza Antolakundeari (MMA) jakinarazitako salbuespen sanitarioa makineria medikoen eta sendagaien patenteetarako sarbidea izateko merkataritza-akordio guztietan txertatu beharko litzateke, osasunaren alorreko produktuak beste merkataritza-produktuengandik bereizteko. Estatuak osasungintza publikoaren esku hartzeko aukerari ez litzaioke murrizketarik jarri behar.
- Krisi honek oinarritzko sektoreen ekoizpen-gaitasuna berreskuratze beharra azpimarratu du. Funtsezko erabakiak irabazi asmoz jarduten duten mundu-mailako merkatu-eragileen esku uzteak deslokalizazioa eta ekoizpenaren gaineko industria-burujabetza demokratikoaren galera ekarri du. Europako Itun Berdea inbertsio publikoaren plan jasangarri eta koordinatu bat iradokitze erabili beharko litzateke, Estatu Kide bakoitzaren ekoizpen-sektore jasangarria garatzeko. Industria estrategikoak birlokalizatu behar dira. Lehiaren politikarentzako esparru berri bat ezarri behar da, estatuaren laguntzen bidez sektore publiko sendo bat ahalbidetuz eta nazio batentzat funtsezkoak diren industria-sektoreen erabateko desagerpena dakarten merkataritza-akordioak eta deslokalizazioa geldiaraziz.

- Berotze globala eta biodibertsitate- eta habitat-galera geldiarazteko saiakerak nabarmen areagotu behar ditugu, osasun krisi honekin dituzten loturak ikusirik, eta eskala eta anbizio handiko klima-helburuak dituen berreskurapen-plan bat txertatuz. Horrek zera esan nahi du, 2040 baino lehen karbono neutraltasuna erdiestea eta erregai fosilak pixkanaka kentzea.
- Krisia ez litzateke Itun Berdea atzeratzeko aitzakia gisa erabili behar. Aitzitik, klima-helburu zorrotzak dituen berreskurapen-plan gisa ikusi beharko genuke, 2030. urterako CO2 isurpenen % 70eko jaitsierarekin. Behar duguna askoz helburu handiagoak dituen EBren egokitzapen-estrategia bat da.
- Diru publikoa enpresen jarduerak eredu iraunkorragoetara bideratzeko erabili beharko litzateke, edozein erreskate jaso ahal izateko gizarte- eta ingurune-baldintza garbiak bete beharra izanik.
- Birmoldatutako larrialdietarako Kontingentzia Plan bat, alde batetik EBren programen onuradunak babesteko, eta bestetik Covid-19 krisiaren ondorio sozioekonomikoak modu eraginkorrean arintzen laguntzeko.
- 2021-2027 aldirako anbizio handiko Urte Anitzeko Finantza Esparru berri bat behar da, kohesioari, klimari, osasunari eta elkartasun-politikei finantzazio handiagoa eskainiko diena. Defentsaren industriara eta misio militarretara bideratutako funtsak bertan behera geratu beharko lirateke. Krisi honi erantzuteko, beharrezkoa da EBren baliabide propioen sistema berraztertzea eta hedatzea.

DIRU PUBLIKOA ENPRESEN JARDUERAK EREDU IRAUNKORRAGOETARA BIDERATZEKO ERABILI BEHARKO LITZATEKE

- Finantzazio osagarria esleitu behar zaie garapenerako eta laguntza humanitariorako EBren tresnei, garapen-bidean dauden herrialdeei euren osasun-sistemak indartzen laguntzeko.
- Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) berritzea, nekazaritza europarra ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarri baterantz doala ziurtatzeko, nekazari txikiei eta nekazaritza-langileei diru-sarrera duinak eta babesa eskainiz eta ingurunea eta animalien ongizatea errespetatuz. Covid-19a gaixotasun zoonotiko bat da, gaixotasun infekzioso berri guztien hiru laurdenak bezalaxe. Etorkizunean halako agerraldi gehiago saihesteko, Europar Batasunak animalia basatien inportazioa eta nazioarteko merkataritza debekatu behar ditu, eta abeltzaintza intentsiboarengandik urrundu behar du.
- Covid-19ak tamaina txikiko arrantzaleengan izan ditu ondorio kaltegarrienak. Sektore horrek EBren funtsetarako oso sarbide mugatua dauka. Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsa oso-osorik berraztertu behar da dagokion babesa jasotzen duela bermatzeko.





DEMOKRAZIA, OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ZUZENBIDE ESTATUA DEFENDATZEN

Krisi honetan zehar gidaritza argi bat izateko beharra ez da inondik inora autoritarismoa eskatzearen parekoa. Krisi honi aurre egiteko elkarlana eta elkartasuna funtsezkoak dira. Pertsonak beren oinarrizko eskubideak babesteko eskubidea daukate uneoro, baita larrialdi-egoera batean ere.

EKINTZAK GAKOA:

- Ez litzateke inor atzean utzi behar: kalitate oneko osasun-zerbitzu publikoetarako doako sarbidea izan beharko genuke, nola prebentzio hala sendagarri gisa, berdintasunean eta bazterkeriarik ezean oinarrituta, egoera soziala edo immigrazio-egoera dena delakoa ere.
- Zuzenbide estatuarekiko, demokraziarekiko eta oinarrizko eskubideekiko errespetua defendatu behar da, komunikabideen askatasuna barne hartuz. Indar autoritarioek larrialdi honetaz baliatuz demokrazia, zuzenbide zibilak eta zuzenbide estatua suntsitzeko egindako saiakerei azkar eta irmoki aurre egin behar zaie. Estatu Kideek hartutako neurriek proportzionalak, behin-behinekoak eta parlamentuan bozkatuak izan behar dute. Neurri horiek ez lirateke jarduera errepresiboak estaltzeko erabili behar osasuna babesteko aitzakiaz. Testuinguru horretan, kezka handia sortzen duten joerak atzeman dira zenbait herrialdeetan, eta gertakari onartezinak ikusi dira Hungarian eta Polonian.
- Europar Batasunak migratzaileen, errefuxiatuen eta gutxiengoen aurkako bereizkeria, pagaburu-bilaketa eta gorroto-diskurtsoa gaitzetsi behar ditu, eta bereziki erromanien egoera aztertu behar du, tokiko eta eskualdeko zenbait agintaritzek jazarri egin baitituzte, eta herrialde ugarietan euren komunitateetatik kanporatuak izan baitira.
- Asilo-eskubidea bermatu behar da. Europar Batasunak eta bere Estatu Kideek deportazioak geldiarazi eta atxilotuta dauden pertsonak askatu behar dituzte. Bizileku-baimenak automatikoki luzatu behar dira eta agiririk gabeko migratzaileei behin-behineko bizileku-baimenak bermatu behar zaizkie. Greziar irlletako kanpamentuak berehala hustu behar ditugu, pertsona horiek ostatu seguru eta duinetara eramanez, birkokatuz eta beste Estatu Kideetan asilo-eskatzaileen familia bateratzea ziurtatuz.

- Itsasoan arriskuan dauden pertsonen laguntza eskaini behar zaie. Nazioarteko itsas zuzenbideari jarraiki, Estatu Kideek arriskuan dauden itsasontziak azkar erreskatatu eta itsasoan salbatutako pertsonen EBko portu batean lehorreratzeko aukera eman behar diete, sozietate zibilaren ontziak eta merkataritza-ontziak barne daudelarik.
- Beharrezkoa da bai barneko bai kanpoko mugetan neurriak hartzea, zeinak Schengen Muga Kodean, Zirkulazio Askearen Zuzentarauan eta Oinarrizko Eskubideen Gutunean oinarritutakoak eta proportzionalak izan beharko duten. Estatu Kideek nazioarteko babesa behar duten pertsonen Schengen eremuan sartzen utzi beharko diete, EBko zuzenbideak diogen eran. Batzordeari eskatzen diogu egin dezala neurri guztien legezotasunaren jarraipena eta bermatu dezala horien ondorengo ebaluazioa. Guztiz erabilgarri egongo den Schengen eremu batera eta zirkulazio librearen eskubidea erabat errespetatzera itzuli behar dugu lehenbailehen.
- Estatu Kideek hartutako zaintza-neurrien jarraipen bat egin beharko du Batzordeak, esate baterako, kokapenaren datuen bilketarena edo biztanleriaren mugimenduak jarraitzeko mugikorretarako aplikazioena, gure pribatutasunean eta datuen babesean ondorio kaltegarriak izan baititzakete. Neurri horien ebaluazioa Datuak Babesteko Ikuskatzaile Europarrarekin kontsultatuz burutu beharko da, eta neurriek legezkoak, eraginkorrak, proportzionalak, gardenak eta behin-behinekoak izan beharko dute: larrialdietako ekimenek ez dute inondik inora zaintza masiboa ekarri behar krisiaren ondoren.
- Estatu Kideek espetxeetan eta atxiloteta-guneetan dauden pertsonen osasuna babestu behar dute, aldi berean euren familiekin eta abokatuarekin komunikatzeko eskubidea bermatuz. Espetxeetako pilaketaren ondorioz egoera oso larria denez, Estatu kideek kategoria jakin batzuetako atxilotuei espetxetik behar baino lehenago irteten utzi beharko liekete, bereziki adinekoei eta gaixotasun larriak dituztenei, bestelako neurri batzuk ezarri.



BERRASMATZEN ...

Pandemia honen ostean, lehengoaren aldean zeharo desberdina izan daiteke eta izan beharko luke munduak.

Covid-19ak egungo osasun krisiaren aurretik bagenekian egia bat azpimarratu du: sistema kapitalistak ez du funtzionatzen. Dogma neoliberalak, klima-hondamendiak, zerbitzu publikoen suntsiketa edota langileen eskubideek jasandako erasoak disfunczio horren adierazleak dira.

Dena den, lortu daitekeen hori ere azaleratu da. Pandemia hau aukera bikaina da beste logika batean oinarrituta gure sistemak nolakoa beharko lukeen irudikatzeko, etekina erdigunean jarri ordez, gizarteak osasuna, pertsonak eta planeta erdigunean jarriko balitu.

Elkartasuna inoiz baino garrantzitsuagoa bilakatu den honetan, jendea jabetu da iraganeko lidergo-ereduek eta euren arrakastarik gabeko doktrinek ez digutela behar dugun etorkizunerantz joaten lagunduko.

Etorkizun hori planeta osasuntsua, berdinzalea eta ekologikoki bidezkoa da. Alabaina, ezin dugu itxaron; berau eraikitzeko lan kolektiboak orain hasi behar du.

Horregatik diogu, hain zuzen, beste Europa bat behar dugula. Eskubideak zaintzen dituen, garapen jasagarria eskaintzen duen eta demokrazia balioesten duen Europa. Berdintasuna, askatasuna eta munduan zehar elkarlan baketsua defendatzen duen Europa.

Elkartasunaren Europa.

**PANDEMIA HONEN OSTEAN,
LEHENGOAREN ALDEAN ZEHARO
DESBERDINA IZAN DAITEKE ETA
IZAN BEHARKO LUKE MUNDUAK.**

La Izquierda en el Parlamento Europeo

Nuestro grupo está formado por Eurodiputados comprometidos con la defensa de los trabajadores así como la defensa del medio ambiente, del feminismo, de la paz, de la democracia & de los derechos humanos.

UNA OTRA EUROPA ÉS POSSIBLE!



GUE/NGL

European United Left • Nordic Green Left
EUROPEAN PARLIAMENTARY GROUP

www.guengl.eu

Sigue GUE/NGL en:

